## Seigarren Europar Batzarra emakumeari eta kirolari buruz
## PARISKO EKINTZA ALDARRIA

**BATZARRAK**

**Gogora ekarri ditu** Brightoneko Aitorpena, Helsinkiko Gomendioak eta Berlingo Memoranduma, horiek guztiek beste mota bateko kirol kultura aldarrikatzen baitute, non gizon eta emakumeak berdintasunean izango liratekeen kirola egin eta kirol alorrean jardun eta erabakiak hartzeko;

**Gogora ekarri du**, baita ere, UNESCOk 2001ean Atenasen egindako Aitorpena emakumeei eta kirolari buruz;

**Pozez agurtu du** Europar Legebiltzarrak 2003ko ekainean hartu zuen ebazpena emakumeei eta kirolari buruz;

**Bere egin du** CIOk hartutako ebazpena Emakumeei eta Kirolari buruzko Mundu Konferentziaren hirugarrenean, "Estrategia berriak, Konpromiso berriak" izenburupean Marrakexen (Marokko) 2004ko martxoan egindakoan;

**Bere egin ditu** "2004, Kirolaren bidezko Heziketaren Urte Europarraren" printzipioak;

**Aitortu du** gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko egin den aurrerakada nabarmena "European Women and Sport" (EWS) sarea sortu zenez geroztik, nahiz eta hauteman duen oraindik badaudela erronka irabazi gabeko batzuk kirolean bi sexuen ordezkaritza orekatua lortzeko:

1) **berretsi du** demokraziaren balioa kirolean berdintasunaren kultura sortzeko;
2) **dei egin die** europar herrialde guztiei kirolean berdintasunaren printzipioa lantzera;
3) **berretsi du** ezinbestekoa dela sinergia, lankidetza eta koordinazioa umotzea bai erakunde europar eta nazionaletan, gobernukoetan nahiz gobernuz kanpokoetan, eta baita emakumezkoen kirol alorraz arduratzen diren olinpiar erakundeetan ere.

**Erantzukizun eta erabakimenean gizonen eta emakumeen partaidetza orekatua izan dadin, Batzarrak:**

4) **dei egiten die** bai kirol-erakunde europar eta nazional guztiei bai gobernuei eraman dezaten demokrazia testuinguru guztietara eta proposa dezaten behar bezainbeste programa gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko eta erabakitakoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ;

5) **gomendatzen die** kirol erkidegoei egutegi zehatz bat presta dezaten kirol alorrean emakumeen borondatezkotasunari sarbide emateko ;

6) **akuilatzen ditu** Europar Batasuneko estatu kideak betetzera Emakumeei eta Kirolari buruzko Europar Legebiltzarraren Ebazpena eta gauza bera egin dezaten eskatzen die Kirolari buruzko Europar Batzarreko eta Europar Kontseiluko eskatu kideei ;

7) **babesa ematen dio** europar konstituzio berrian kirola ofizialki aitortzeari. Eskatzen die konstituzioa egikarituko dutenei beren politiketan sar ditzaten demokraziaren eta berdintasunaren printzipioak eta babes ditzaten kirola eta hezkuntza fisikoa gizarteratzeko programak;

**Demokratizazioa sendotu dadin eta, beraz, emakumeek kiroletarako sarbide izan dezaten, Batzarrak:**

8) **dei egiten die** bai kirol-erakunde europar eta nazional guztiei bai gobernuei berrikus ditzaten beren garapen politikak eta programak, finantza laguntzak gizonen eta emakumeen artean egokiago banatu eta, hartaz, kirol praktikaren ate guztiak denei zabaltzeko;

9) **eskatzen du** kultur dibertsitatea kontuan hartuta aukera berdinak ematea mutil nahiz neska orori eta emakume nahiz gizon orori, bakoitzak egin dezan bere aukerako kirola, eta europar estatu guztiei dei egiten die kirol diskriminazioko adierazpide guztiak borrokatzera;

10) **berriz azpimarratzen du** komunikabideek berdintasunez jokatu behar dutela kirol eliteko emakumezkoekin eta gizonezkoekin, bai ikuspuntu kuantitatiboaren bai kualitatiboaren aldetik, eta kirol-erakunde nazionalei dei egiten die alor horretan egindakoaren jarraipena egitera.

**Heziketa kirolaren bidez eta kirolaren baitan ondu dadin, Batzarrak:**

11) **azpimarratzen du** heziketa fisikoak duen garrantzia eskola curriculumean nesken eta mutilen arteko berdintasuna ziurtatzeko eta kirola egitea bizitza osora luzatzeko; dei egiten die europar estatuetan heziketaz arduratzen diren instantziei, sexu ezaugarriak kontuan hartuta erabaki ditzaten heziketa fisikoko programak;

12) **dei egiten die** gobernuko eta gobernuz kanpoko agentziei, kirolaren eta heziketa fisikoaren erakunde zientifikoei, unibertsitateei eta kirol federazioei, mantendu eta sendotu ditzaten prestakuntza profesionaleko programak kirol kudeaketan, entrenamenduan, arbitrajean eta kazetaritzan, eta kontuan har ditzaten sexu ezaugarriak kiroleko eginkizun desberdinetara emakumeari sarbide emateko:

13) **bultzatzen ditu** Europako kirol mugimenduak, nola olinpiarrak hala para-olinpiarrak, mentoring-ako ikastaro eta programak lantzera, emakumeek beren

lekua har dezaten borondatezkotasunaren maila guztietan, nola tokian tokikoetan hala nazioartekoetan.

Parisen (Frantzia) 2004ko apirilaren 23tik 25era egin den Emakumeari eta Kirolari buruzko Seigarren Europar Batzarrera etorritako 33 herrialdeetako 275 ordezkariek ekintza aldarri hau egiten die erakunde garrantzitsuenetako, nola nazionaletako hala nazioartekoetako, gizon eta emakumeei, eta bereziki erakunde eta gizon-emakume hauei:

- Nazioetako eta lurraldetako kirol erakundeei, nazioetako batzorde olinpiar eta para-olinpiarrei eta kirol, gazteria eta hezkuntzako ministro arduradunei.

- Kiroletako Europar Erakunde Gobernuz Kanpokoari (ENGSO), Europako Batzorde Olinpiarrari (EOC) eta Europako kirol federazioei;

- Heziketa fisikoaren erakundeei eta kirol zientzietakoei;

- Kiroletako Europar Batzarrari (ESC);

- Europar Kontseiluko Kirol Garapenerako Batzordeari (CDDS);

- Europar Batasuneko erakundeei (EB).

6 Conferencia Europea sobre la mujer y el deporte

**LLAMAMIENTO DE ACCION DE PARIS**

La conferencia,

**Hace una llamada** a la Declaración de Brighton, a las Recomendaciones de Helsinki, al Memorándum de Berlín que toman en consideración la necesidad de una cultura deportiva donde los chicos y las chicas, los hombres y las mujeres tengan las mismas oportunidades de practicar, de actuar y de tomar decisiones;

**Hace una llamada** igualmente a la Declaración hecha en el 2001 en Atenas por la UNESCO sobre las mujeres y el deporte;

**Se felicita por** la adopción en junio del 2003 por parte del Parlamento Europeo de la Resolución sobre las Mujeres y el Deporte;

**Tiene en cuenta la resolución del CIO** adoptada en la tercera Conferencia Mundial sobre la Mujer y el Deporte titulada "Nuevas estrategias, nuevos compromisos", que tuvo lugar en Marrakech en marzo del 2004;

**Toma en consideración** los principios del " Año Europeo de la Educación a través del Deporte 2004";

**Reconoce** los progresos significativos realizados después de la creación de la red " La Mujer y el Deporte en Europa " (EWS) para la promoción de la igualdad de oportunidades entre los hombres y las mujeres en el deporte, pero siendo consciente que existen todavía unos deficits para alcanzar una representación equilibrada de los dos sexos en el deporte:

1) **reafirma** el concepto de la democracia como medio de crear una cultura de igualdad en el deporte;
2) **llama** a todos los paises europeos a desarrollar el principio de igualdad en el deporte;
3) **reafirma** la necesidad de sinergia, de cooperación y de coordinación entre los organismos europeos y nacionales, gubernamentales y no gubernamentales así como las organizaciones olímpicas responsables de cuestiones de la mujer en el deporte;

**Para asegurar una participación equilibrada entre los hombres y las mujeres en las posiciones de responsabilidad y de toma de decisión, la Conferencia:**

4) **llama** a todas las organizaciones deportivas europeas y nacionales así como las gubernamentales a colocar en su sitio la democracia a todos los niveles y de proponer programas afin de alcanzar la igualdad entre los hombres y las mujeres, haciendo el seguimiento y la evaluación;
5) **recomienda** la colocación de un calendario específico en el seno de las comunidades deportivas para facilitar la implicación voluntaria de mujeres en el medio deportivo;
6) **incita** a los Estados miembros de la Unión Europea a colocar en su sitio la resolución del Parlamento Europeo sobre las Mujeres y el Deporte y demanda a los paises miembros de la Conferencia Europea sobre el Deporte y el Consejo de Europa de hacer otro tanto;
7) **apoya** el reconocimiento oficial del deporte en la nueva constitución europea. Demanda a quienes la han establecido a incluir en sus políticas los principios de la democracia y de la igualdad y de mantener los programas con vistas a mejorar la integración en el deporte y la educación física;

**Para sostener la democratización y el acceso de las mujeres al deporte, la Conferencia:**

8) **llama** a todas las organizaciones deportivas europeas y nacionales así como las gubernamentales a revisar sus políticas y programas de desarrollo a fín de asegurar un sostenimiento financiero equilibrado entre los hombres y las mujeres y así permitir un acceso a todas las prácticas deportivas en todos los niveles;
9) teniendo en cuenta la diversidad de culturas, **demanda** a que se ofrezcan oportunidades igualitarias

para cada chico y cada chica y a cada hombre y a cada mujer para practicar actividad deportiva de su elección y llama a todos los Estados Europeos a luchar contra toda forma de discriminación en el deporte;

10) insiste sobre la necesidad de una cobertura mediática equilibrada deportiva femenina y masculina tanto en el plano cuantitativo como cualitativo y llama a las organizaciones deportivas nacionales a efectuar un seguimiento de los progresos realizados en este sector.

**Para desarrollar la educación a través y en el deporte, la conferencia:**

11) **insiste** sobra la importancia de la educación física en el curriculum escolar para asegurar la igualdad entre las chicas y los chicos y para favorecer su práctica deportiva a lo largo de toda su vida; llama a las instancias encargadas de la educación en los Estados europeos a facilitar programas de educación física teniendo en cuenta las características unidas al sexo;

12) **llama** a los agentes gubernamentales y no gubernamentales, las asociaciones científicas de deporte y educación física, las universidades y las federaciones deportivas a mantener y a desarrollar los programas de formación profesional en la gestión, entrenamiento, arbitraje y periodismo, teniendo en cuenta las características unidas al sexo a fin de favorecer el acceso de las mujeres a los diferentes cometidos que el deporte necesita;

13) **anima** a los movimientos deportivos, Olímpicos y Paraolímpicos Europeos a desarrollar las formaciones y programas para incitar a las mujeres a tomar posiciones de voluntariado en todos los niveles, tanto a nivel local como a nivel internacional.

L@s 275 delegad@s de los 33 paises presentes en la 6 Conferencia Europea sobre las Mujeres y el Deporte celebrado en Paris (Francia), del 23 al 25 de abril de 2004, dirigen su llamada de acción a todos los hombres y mujeres de las organizaciones relevantes nacionales e internacionales, como:

-Los organismos deportivos nacionales y regionales, los comités nacionales Olímpicos y Paraolímpicos y los ministros responsables para el deporte, la juventud y la educación;

-La organización Gubernamental Europea del Deporte (ENGSO), el Comité Olímpico Europeo ( EOC) y las Federaciones Deportivas Europeas;

-La educación física y las organizaciones de las ciencias del deporte;

-La Conferencia Europea del Deporte (ESC);

-El Comité para el Desarrollo del Deporte por el Consejo Europeo (CDDS);

-Las Instituciones de la Unión Europea (EU).